



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko irailaren 13a

104. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Kontu Irekiei buruzko Foru Lege proposamena. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Meategien inguruko Mahaia edo Kontseilua eratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Nafarroako eremu ez-euskalduneko A eta G ereduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuan bideragarritasun ekonomikoko azterlan xehakaturik ez egoteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuak toki ogasunean duen eraginari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuan saneamendu sarea justifikatu gabe egoteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari dagokionez lurzatieta esplorazioak neurri handiagoan mugatu beharri buruzkoa eta proiektu horretako espazio publiko urbanizatuak irisgarriak izateko eta lurzati horien irisgarritasunari eta erabilerari dagokienez bereizkeriarik ez izateko oinarritzko baldintzak betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuan Lurralde Antolamenduko 2. Planaren 58. artikulua betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari buruzko txostenaren “1. alternatiba” izeneko aukerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari buruzko txostenaren “2. alternatiba” izeneko aukerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari buruzko txostenaren “4. alternatiba” izeneko aukerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

- Galdera, Lekarozko Aroztegia udalez gaindiko plan sektoriala iraungitzea erabakitzeko aukerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari buruzko txostenaren konklusioetako 4. aukerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, ANADI elkarteak eskatu duen diru-laguntza ukatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak eta haren mendeko sozietateek Tafallako eskualdean alokatuta dituzten higieziei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, errenta-aitorpenaren kanpaina dela-eta bai Ogasuneko 182. zenbakiko eredia aurkeztu behar duten elkarte, sindikatu eta erakundeei bai zergadunarentzako arreta ematen duten administrariei eman zaizkien jarraibideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Kultur Ondarearen Ondasunen Erregistroan inskribatutako ondasunen jabeen egindako errekerimenduei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Kontu Irekiei buruzko Foru Lege proposamena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Kontu Irekiei buruzko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak. Proposamen hori 2016ko apirilaren 29ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

1. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Tituluaren 1. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztua proposatzen dugu:

“Foru lege honen bidez deklaratu da irekiak eta irisgarriak direla Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontu guztiak, bai eta Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen 2. artikulua esparru subjektiboaren barruan sartzen diren erakunde, agentzia eta enteen kontu guztiak eta Nafarroako Parlamentuarenak, Kontuen Ganberarenak, Nafarroako Arartekoarenak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarenak ere”.

Zioak: Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen aplikazio-eremua txikia denez, diru publikoarekin mantentzen diren gainerako erakundeak gehitzen joan behar da.

2. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Titulu bakarraren 2. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztua proposatzen dugu:

“Informazio argitaratua hiruhileko bakoitzaren azken egunean eguneratuko da; hiruhilekotzat joko da urtebetea lautan zatitzea, eta lehenengo urtariletik martxora bitartean doana da. Xede diren hiletako hileko saldoak azalduko dira zehatz-mehatz egun horretan”.

Zioak: Testua ez da argia, “aurreko hileko azken eguneko balio-data” adierazteak nahastea ekar baitezake.

3. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. Titulu bakarraren 2. artikuluan (“Kontu publikoak”) 4. idatz-zatia gehitzen da. Honako hau dio:

“4. Honako datu hauek argitaratu beharko dira mugimendu bakoitzari buruz, mugimendutzat hartuta kontabilitatean identifikatzen dena:

a) Hartzailea. Informazio hori ez da adieraziko, foru lege honen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera hori izenik gabe eman behar denean.

b) Mugimendua eragin duen kontzeptua.

c) Mugimenduaren data.

d) Mugimenduaren zenbatekoa.

e) Erakunde eskudunek beren autonomiaren esparruan erregelamendu bidez ezartzen duten beste edozein”.

Zioak: Informazio hori ezinbestekoa da herritarrentzat, foru lege honen bidez aditzera eman nahi diren banku-mugimenduak benetan ezagutarazteko.

4. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Titulu bakarraren 3. artikulua (“Argitaratze-lekua”) aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztea proposatzen dugu:

“Foru lege honetan aurreikusitako gardentasun-betekizunei lotutako informazio guztia argitaratuko da Nafarroako Gobernuaren Gardentasun Atarian, Gobernu Irekiaren web orrian, edo etorkizunean hura ordezkatzeko duen kasuko orrian, baita Nafarroako Parlamentuaren, Kontuen Ganberaren, Nafarroako Arartekoaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren antzeko web orrietan ere, erakunde bakoitzari dagokion informazioa emanda.”

Zioak: Lege proposamen honen 1. artikuluan legearen aplikazio-eremurako erakunde berriak gehitutakoan, espazio digital berri horiek ere gehitu behar dira.

5. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa. Titulu bakarrean 7. artikulua (“Erreklamazioa”) gehitzen da. Hona hemen haren testua:

“7. artikulua. Erreklamazioa

Nafarroako Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen 70. artikuluan xedatutakoaren arabera, norbait uste badu foru legearen aplikaziopean dauden instituzio, erakunde edo entitateetako edozeini egozten ahal zaion egite edo ez-egite batek urratu egin duela kontu irekien arloko informazio publikoa eskuratzeko daukan eskubidea, erreklamazioa aurkezten ahalko du Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluan eta, kasua bada, Administrazioarekiko

Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legean aurreikusitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.”

Zioak: Erreklamazioa bada herritarrek administrazioaren jardunean laguntzeko eta parte hartzeko daukaten ahalduntzearen eta segurtasunaren oinarria.

6. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa. Titulu bakarrean 8. artikulua (“Jarraipena”) gehitzen da. Hona hemen haren testua:

“8. artikulua. Jarraipena

Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak foru lege honetan ezarritako betebeharrak betetzen direla zainduko du, eta idatz-zati berezi bat gehituko du horien betetze-mailari buruz Nafarroako Parlamentuari eta herritarrei aurkeztu beharreko dokumentazioan.”

Zioak: Ezin da ahaztu Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak foru lege honen jarraipenean izan behar duen eginkizuna.

7. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa. Titulu bakarrean 9. artikulua (“Zehapen araubidea”) gehitzen da. Hona hemen haren testua:

“9. artikulua. Zehapen araubidea

Zehapen araubidea Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legean edo etorkizunean hura ordezkatzeko duen legean ezarritakoa izango da.”

Zioak: Nahiz eta gaur egun zehapen araubiderik ez egon Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legean, begien bistakoa da hori ahalik eta lasterren gehitu behar dela lege horretan edo beste batean. Bestela, alferrekoa izango da arlo horretan legeak ematea.

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Meategien inguruko Mahaia edo Kontseilua eratzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin David Anaut Peña jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Meategien inguruko Mahaia edo Kontseilua eratzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 27ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko David Anaut Peña jaunak 9-16/PES-00220 parlamentu-galdera egin du. Hauxe da Garapen Ekonomikorako kontseilariak informatzeko duena:

Gaur arte ez da eratu Meatzaritzaren Mahaia edo Kontseilua eta, horrenbestez, haren osaera ez da erabaki eta ezin izan da bildu.

Hemendik gutxira eratzeko asmoa dago, eta meatzaritzaren arloa dela-eta Nafarroako Gobernuaren parte-hartzerako, kontsultarako eta aholkua emateko eginkizunak izanen dituen erakunde izanen da. Bertan ordezkatura egonen dira arloan interesak dauzkaten erakunde eta entitateak, nola baitira toki entitateak eta enpresa-erakunde zein erakunde ekologistak, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legean jasotako herritarren parte-hartzerako printzipioei jarraituz. Kide anitzeko organo honen eratzea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 29. artikuluan xedatuari jarraituz, kasuko xedapen-arauaren bitartez egiten da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko David Anaut Peña jaunak 9-16/PES-00220 parlamentu-galdera egin du. Garapen Ekonomikorako kontseilariak honako honekin osatu nahi du ekainaren 17an igorritako informazioa:

2009ko maiatzaren 7an, Nafarroako Meatzaritza Garatzeko Mahaia deitutako lantalde bat eratu zen, administrazio publikoen eta Nafarroako meatzaritza-industriaren arteko komunikazioa hobetzeko eta bideratzeko funtsezko elementua izateko helburuarekin, bai eta industria horri eustearen eta hura garatzearen arloan lan egiteko ere. Talde honek honako bilera hauek egin ditu: izaera estrategikoko hiru bilera, 2010eko azaroan, 2011ko martxoan eta 2012ko abenduan, gai orokorrak lantzeko. Izaera teknikoko hiru bilera, 2013ko ekainean, 2015eko maiatzean eta 2015eko ekainean, maila teknikoko gai jakin batzuk lantzeko. Bilera horiek egin dira gai hauek lantzeko Administrazioak edo sektoreak egokitzat jo dutenean.

Une honetan, egokitzat jotzen da beste etapa bati hasiera ematea, Meatzaritzaren Mahaia edo Kontseilua eratuz, Nafarroako Gobernuaren meatzaritzaren arloko parte-hartzerako, kontsultarako eta aholkua emateko eginkizunak dituen kide anitzeko organo gisa. Bertan ordezkatura egonen dira arloan interesak dauzkaten erakunde eta entitateak, nola baitira toki entitateak eta enpresa-erakunde zein erakunde ekologistak, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legean jasotako herritarren parte-hartzerako printzipioei jarraituz. Kide anitzeko organo honen eratzea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2001 Foru Legeko 29. artikuluan xedatuari

jarraituz, kasuko xedapen-arauaren bitartez eginen da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016eko ekainaren 20an.

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, Nafarroako eremu ez-euskalduneko A eta G ereduei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako eremu ez-euskalduneko A eta G ereduei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 27ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak 9-16/PES-00221 idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Lehenengo galderari dagokionez, aipatu beharra dago ezen Hezkuntza Departamentuak ez duela aurreikusten A ereduko lerroen kopuru zehatzik ezartzea eremu ez-euskalduneko ikastetxeetan. Aurreinskripzio-prozesuan, 2016-17 ikasturtean ikastetxe horietan eskolatzen hasiko diren 3 urteko ikasleen familiek eskaera bat egin dute, non seme-alabarentzat hautatutako hizkuntza-eredua adierazi baitute.

Hiru urteko ikasleen eskaeren kopurua ikusita, zehazten da ikastetxeak haur hezkuntzako lehe-

nengo mailako zenbat unitate izanzen dituen. Hala-ber, A ereduko eskolaratze-eskaeren kopuruaren arabera, Hezkuntza Ikuskapenaren Zerbitzuak zehazten du ikasle horiek artatzeko ikastetxeari zenbateko zama dagokion euskarazko irakasleen ikastorduak direla eta, eta ikastetxeak erabakitzen du, bere antolamendu-irizpideen arabera, ikasleak nola banatuko dituen, baldin eta maila horretan talde bat baino gehiago badago.

Banaketa horrek ez dakar berarekin ikastetxeari irakasleen ordu gehiago edo gutxiago ematea, zeren eta aukerako ikasgaietan (erlijioa, atzerriko bigarren hizkuntza), euskara ordu berean ematen baitzaie bi edo talde gehiagoko ikasleei, baldin eta 25 ikasle baino gehiago ez badira. Hori dela eta, ezin dugu A ereduko lerroei buruz hitz egin, zeren eta gehienetan A eredua duten eremu ez-euskalduneko ikastetxeetako hiru urteko ikasleen taldeak mistoak baitira, A eta G ereduko ikasleek osatuak.

Zehazki, egungo ikasturtean, A eredua duten eremu ez-euskalduneko bi edo lerro gehiagoko 17 ikastetxeetatik 16k beren 3 urteko talde guztietan A eta G ereduko ikasleak dauzkate, eta bakarrak (Noingo San Miguel HLHIPa) biltzen du A ereduko ikasleen zati bat bi talde homogeneotan eta gainerakoak G ereduko ikasleekin osatutako talde misto batean. Honako hau da ikastetxe horietako taldeen egoera:

2015-2016 ikasturtea					A ereduko ikasleak				G ereduko ikasleak			
Ikastetxea	3 urtekoen taldeak	3 urteko ikasleak	A ereduko ikasleak	G ereduko ikasleak	1. multzoa	2. multzoa	3. multzoa	4. multzoa	1. multzoa	2. multzoa	3. multzoa	4. multzoa
Beriango HLHIPa	2	32	23	9	13	10			3	6		
Cascanteko Sta. Vicenta Maria HLHIPa	2	50	17	33	7	10			18	15		
Castejón 2 de Mayo HLHIP	2	42	4	38	2	2			19	19		
Cintruenigoko Otero de Navascués HLHIPa	4	85	29	56	7	8	7	7	14	13	15	14
Martzellako S. Bartolomé HLHIPa	2	37	5	32	2	3			16	16		
Murchanteko Mardones y Magaña HLHIPa	2	40	5	35	3	2			16	19		
Noaingo San Miguel HLHIPa	3	71	59	12	25	23	11				12	
Erriberriko Principe de Viana HLHIPa	2	39	22	17	9	13			11	6		
Azkoiengo J. B. Irurzun HLHIPa	3	61	10	51	3	3	4		18	16	17	
Ribaforadako S. Bartolomé HLHIPa	2	39	7	32	3	4			16	16		
San Adriango Alfonso X El Sabio HLHIPa	3	62	24	38	10	7	7		11	14	13	
Zangozako L. Gil HLHIPa	2	41	34	7	17	17			4	3		
Tafallako Marqués Real Defensa HLHIPa	2	31	24	7	12	12			4	3		
Tuterako Griseras HLHIPa	2	49	11	38	5	6			19	19		
Tuterako Monte S. Julián HLHIPa	2	49	16	33	7	9			17	16		
Vianako R. Campano HLHIPa	2	37	30	7	14	16			4	3		
Villafrancako El Castellar HLHIPa	2	26	9	17	5	4			7	10		

Datorren ikasturterako, aurreinskripzio-prozesuaren ondoren, A ereduko eremu ez-euskalduneko ikastetxeek honako eskaera hauek jaso dituzte:

Herria	Ikastetxea	3 urteko ikasleen taldeak	3 urteko ikasleak, guztira	A ereduko ikasleak
Ablitas	S. Babil HLHIPa	1	19	7
Allo	La Cruz HLHIPa	0	6	6
Antzin	S. Fausto HLHIPa	0	1	1
Andosilla	V. Cerca HLHIPa	1	15	3
Añorbe	Añorbe HLHIPa	0	4	4
Arroitz	Arroitz HLHIPa	0	5	5
Artaxoa	Urraca Reina HLHIPa	1	8	7
Barasoain	M. Azpilcueta HLHIPa	0	4	1
Beire	Beire HLHIPa	0	3	3
Berbintzana	Rio Arga HLHIPa	0	5	5
Berriain	Beriaingo HLHIPa	2	30	21
Cabanillas	S. J. Jerusalén HLHIPa	1	11	5
Caparroso	V. Soto HLHIPa	1	25	12
Cárcar	V. Gracia HLHIPa	0	2	1
Zarrakaztelu	V. Oliva HLHIPa	1	20	14
Cascante	Sta. Vicenta Maria HLHIPa	2	27	11
Kaseda	F. J. Saenz de Oiza HLHIPa	0	8	6
Castejón	2 de Mayo HLHIPa	2	39	4
Cintruénigo	Otero de Navascués HLHIPa	4	79	16
Corella	J. L. Arrese HLHIPa	3	74	5
Cortes	Cerro de la Cruz HLHIP	2	27	12
Deikaztelu	V. Nieves HLHIPa	0	3	3
Faltzes	D ^a Álvarez HLHIPa	1	13	11
Fontellas	V. Rosario HLHIPa	0	3	1
Larraga	S. Miguel HLHIPa	1	12	5
Lerin	Dña. Blanca de Navarra HLHIPa	1	13	8
Lodosa	A. Mnez. Baigorri HLHIPa	1	15	2
Los Arcos	Sta. María HLHIPa	1	7	7
Irunberri	S. Juan HLHIPa	1	10	8
Martzilla	S. Bartolomé HLHIPa	2	29	14
Mélida	Sta. Ana HLHIPa	0	4	1
Mendigorría	J. M. Espinal Olcoz HLHIPa	1	11	10
Miranda Arga	S. Benito HLHIPa	1	9	9
Elo	Sta. Bárbara HLHIPa	0	3	3
Murchante	Mardones y Magaña HLHIPa	2	33	5
Noain	S. Miguel HLHIPa	3	60	53
Obanos	Obanos HLHIP	0	5	5
Erriberri	P. de Viana HLHIPa	2	35	28
Oteitza	S. Salvador HLHIPa	0	6	6
Azkoien	J. B. Irurzun HLHIPa	3	57	11
Pitillas	Pitillas HLHIPa	0	2	1
Arrada	Ximenez de Rada HLHIPa	0	5	3
Ribaforada	S. Bartolomé HLHIPa	2	32	7
San Adrián	Alfonso X El Sabio HLHIPa	4	81	21
Zangoza	L. Gil HLHIPa	2	42	35
Santakara	N ^a Sra. de la Asunción HLHIPa	0	4	2
Sartaguda	N ^a Sra. del Rosario HLHIPa	1	7	7
Sesma	V. Nieves HLHIPa	1	5	1
Tafalla	Marqués Real Defensa HLHIPa	1	16	11
Tutera	Griseras HLHIPa	2	50	12
Tutera	Monte S. Julián HLHIPa	2	25	10
Viana	R. Campano HLHIPa	2	26	14
Alesbes	El Castellar HLHIPa	1	23	7
Villatuerta	S. Veremundo HLHIPa	0	7	6

OHARRA: 0 talde daudela aipatzen den 19 ikastetxeetan, hiru urteko ikasleak adin desberdinetako neska-mutilen taldeetan sartzen dira.

Bigarren galderari dagokionez, eta kontuan hartuz gai hau ikastetxe bakoitzaren barne-antolamenduari dagokiola, honako hau aipatu behar dugu:

1. 3 urteko ikasleak adin desberdinetako ikasle-en beste talde batekin biltzen diren 19 ikastetxeetan, taldeak mistoak dira beti. Kasu horretan, 2016-2017 ikasturterako, honako ikastetxe hauek daude:

Herria	Ikastetxea	A ereduko ikasleak	G ereduko ikasleak
Allo	La Cruz HLHIPa	6	0
Antzin	S. Fausto HLHIPa	1	0
Añorbe	Añorbe HLHIPa	4	0
Arroitz	Arroitz HLHIPa	5	0
Barasoain	M. Azpilcueta HLHIPa	1	3
Beire	Beire HLHIPa	3	0
Berbintzana	Rio Arga HLHIPa	5	0
Cárcar	V. Gracia HLHIPa	1	1
Kaseda	F. J. Saenz de Oiza HLHIPa	6	2
Deikaztelu	V. Nieves HLHIPa	3	0
Fontellas	V. Rosario HLHIPa	1	2
Mélida	Sta. Ana HLHIPa	1	3
Elo	Sta. Bárbara HLHIPa	3	0
Obanos	Obanos HLHIP	5	0
Oteitza	S. Salvador HLHIPa	6	0
Pitillas	Pitillas HLHIPa	1	1
Arrada	Ximenez de Rada HLHIPa	3	2
Santakara	N ^a Sra. de la Asunción HLHIPa	2	2
Villatuerta	S. Veremundo HLHIPa	6	1

2. Gauza bera gertatzen da 3 urteko ikasleen unitate bakarra dagoen 18 ikastetxeetan. Honako hauek dira:

Herria	Ikastetxea	A ereduko ikasleak	G ereduko ikasleak
Ablitas	S. Babil HLHIPa	7	12
Andosilla	V. Cerca HLHIPa	3	12
Artaxoa	Urraca Reina HLHIPa	7	1
Cabanillas	S. J. Jerusalén HLHIPa	5	6
Caparroso	V. Soto HLHIPa	12	13
Zarrakaztelu	V. Oliva HLHIPa	14	6
Faltzes	D ^a Álvora Álvarez HLHIPa	11	2
Larraga	S. Miguel HLHIPa	5	7
Lerin	Dña. Blanca de Navarra HLHIPa	8	5
Lodosa	A. Mnez. Baigorri HLHIPa	2	13
Los Arcos	Sta. María HLHIPa	7	0
Irunberri	S. Juan HLHIPa	8	2
Mendigorria	J. M. Espinal Olcoz HLHIPa	10	1
Miranda Arga	S. Benito HLHIPa	9	0
Sartaguda	N ^a Sra. del Rosario HLHIPa	7	0
Sesma	V. Nieves HLHIPa	1	4
Tafalla	Marqués Real Defensa HLHIPa	11	5
Alesbes	El Castellar HLHIPa	7	16

3. 3 urteko ikasleen bi unitate dauden 12 ikastetxeetan, aurreko ikasturteen antolamenduari erreparatuta, A ereduko ikasleak bi taldetan banatzen dira. Une hauetan, ezin da jakin zein izanen den

banaketa zehatza, zeren eta ikasleak ez baitira beti multzo berdinetan banatzen. Hala eta guztiz ere, taldeak geratuko diren moduari buruzko simulazio bat eginen dugu:

Herria	Ikastetxea	A ereduko ikasleak		G ereduko ikasleak	
		1. multzoa	2. multzoa	1. multzoa	2. multzoa
Beriain	Beriaingo HLHIPa	11	10	4	5
Cascante	Sta. Vicenta Maria HLHIPa	6	5	8	8
Castejón	Dos de Mayo HLHIPa	2	2	18	17
Cortes	Cerro de la Cruz HLHIP	6	6	8	7
Martzilla	S. Bartolomé HLHIPa	7	7	8	7
Murchante	Mardones y Magaña HLHIPa	3	2	14	14
Erriberri	P. de Viana HLHIPa	14	14	4	3
Ribaforada	S. Bartolomé HLHIPa	4	3	12	13
Zangoza	L. Gil HLHIPa	18	17	3	4
Tutera	Griseras HLHIPa	6	6	19	19
Tutera	Monte S. Julián HLHIPa	5	5	8	7
Viana	R. Campano HLHIPa	7	7	6	6

4. 3 eta 4 lerroko 5 ikastetxeetan, badago ikastetxe bat (Corellako José Luis Arrese IPa) non lehenengo aldiz izanen baitira A ereduko ikasleak; hori dela eta, ezin dugu jakin ikasleak nola antolatu diren. Gainerako ikastetxeetatik Noaingo San Miguel IPa da A ereduko ikasleak talde homogeneotan banatzen dituen bakarra. Aurrekari horiekin, honela gelditi liteke taldeen antolaketa:

Ikastetxea	A ereduko ikasleak				G ereduko ikasleak			
	1. multzoa	2. multzoa	3. multzoa	4. multzoa	1. multzoa	2. multzoa	3. multzoa	4. multzoa
Cintruenigoko Otero de Navascués HLHIPa	4	4	4	4	16	16	16	15
Corellako J. L. Arrese HLHIPa								
Noaingo San Miguel HLHIPa	20	20	13				7	3
Azkoiengo J. B. Irurzun HLHIPa	4	4	3		15	15		16
San Adriango Alfonso X El Sabio HLHIPa	6	5	5	5	15	15	15	15

Laburbilduta, gaur den egunean, eremu ez-euskaldunetan A eredu eskaintzen deneko ikastetxe publikoen artean 3 urteko ikasleak dauzkaten 78 talde daude (horien barruan daude adin desberdinetako ikasleak dauzkaten 19 ikastetxeak). Corellako José Luis Arrese HLHIPan zein antolaketa ezartzen den jakitea falta dugula, soilik 2 talde egonen lirateke ikasle guztiak A eredukoak dituztenak; gainerako kasuetan, G ereduko ikasleak eta A eredukoak talde berean egonen dira.

Hirugarren eta laugarren galderari dagokionez, erantzukizuna ikastetxe bakoitzeko ateak zabalteko jardunaldian informazio hori ematen duten zuzendaritza-taldeena da.

Iruñean, 2016ko ekainaren 16an.

Hezkuntza Departamentuko kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuan bideragarritasun ekonomikoko azterlan xehakaturik ez egoteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lekarozko Aroztegia proiektuan bideragarritasun ekonomikoko azterlan xehakaturik ez egoteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 27ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Bildu parlamentu-taldeak 9-16/PES-00222 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, udalez gaindiko plan eta proiektu sektorialak aztertzeke diziplinarteko eta departamentuarteko lantaldeak, "Aroztegia" izeneko udalez gaindiko plan sektorialari dagokionez, emandako txostenari buruz. Gai hori dela-eta, honako hau informatzeko beharra daukagu:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren otsailaren 8ko 42/2016 Foru Aginduaren bitartez, departamentuen arteko lantalde bat sortu zen, Udalez gaindiko plan eta proiektu sektorial batzuen izapidetze administratiboaren egoera aztertze aldera eta haiek lurralde antolamenduko tresna horietarako ezarritako lege-esparruan kokatzeko.

Aipatutako foru aginduan xedatzen da (5. puntua) lantalde horren lanetik heldu diren ondorioak

kasuko aktetan jasoko direla. Haietan, egindako azterlanak jasoko dira, bai eta Nafarroako Gobernuari berak azter ditzan aurkeztuko zaizkion ondorioak ere. Nafarroako Gobernuak, azkenik, kasuan kasu bidezkoak diren erabakiak hartuko ditu.

"Aroztegia" udalez gaindiko plan sektorialari dagokionez, lantaldeak, aho batez, amaierako txosten bat eman zuen 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran.

Amaierako txosten hori Nafarroako Gobernuari helarazi zitzaion, baina gaur arte ez du inongo xedapen edo erabakirik hartu edo gogoetarik egin aipatutako txostena dela eta.

Hala eta guztiz ere, galdetutakoari dagokionez, honako hau esan daiteke:

Gobernuak Aroztegiko udalez gaindiko plan sektorialaren garapenaren esparruan egiten diren jarduketa guztien segurtasun juridikoa zaindu beharra dauka, bai jada egin diren jarduketari dagokienez, bai etorkizunerako aurreikusten direnei dagokienez. Gobernuaren txosten juridikoek aipatzen dute ezen gaur arte garatutako jarduketak koherenteak direla aipatutako segurtasun juridikoaren printzipioarekin.

Hori guztia informatzen dugu, behar diren eraginetarako.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Nafarroako Foru Komunitateko lehendakaria:
Uxue Barkos Berruezo

Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuak toki ogasunean duen eraginari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lekarozko Aroztegia proiektuak toki ogasunean duen eraginari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 27ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Bildu parlamentu-taldeak 9-16/PES-00223 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, udalez gairiko plan eta proiektu sektorialak aztertze dizi-plinarteko eta departamentuartereko lantaldeak, "Aroztegia" izeneko udalez gairiko plan sektorialari dagokionez, emandako txostenari buruz. Gai hori dela-eta, honako hau informatzeko beharra daukagu:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren otsailaren 8ko 42/2016 Foru Aginduaren bitartez, departamentuen arteko lantalde bat sortu zen, Udalez gairiko plan eta proiektu sektorial batzuen izapidetze administratiboaren egoera aztertze aldera eta haiek lurralde antolamenduko tresna horietarako ezarritako lege-esparruan kokatzeko.

Aipatutako foru aginduan xedatzen da (5. puntua) lantalde horren lanetik heldu diren ondorioak

kasuko aktetan jasoko direla. Haietan, egindako azterlanak jasoko dira, bai eta Nafarroako Gobernuari berak azter ditzan aurkeztuko zaizkion ondorioak ere. Nafarroako Gobernuak, azkenik, kasuan kasu bidezkoak diren erabakiak hartuko ditu.

"Aroztegia" udalez gairiko plan sektorialari dagokionez, lantaldeak, aho batez, amaierako txosten bat eman zuen 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran.

Amaierako txosten hori Nafarroako Gobernuari helarazi zitzaion, baina gaur arte ez du inongo xedapen edo erabakirik hartu edo gogoetarik egin aipatutako txostena dela eta.

Hala eta guztiz ere, galdetutakoari dagokionez, honako hau esan daiteke:

Gobernuak Aroztegiko udalez gairiko plan sektorialaren garapenaren esparruan egiten diren jarduketak guztien segurtasun juridikoa zaindu beharra dauka, bai jada egin diren jarduketari dagokionez, bai etorkizunerako aurreikusten direnei dagokionez. Gobernuaren txosten juridikoek aipatzen dute ezen gaur arte garatutako jarduketak koherenteak direla aipatutako segurtasun juridikoaren printzipioarekin.

Hori guztia informatzen dugu, behar diren eraginetarako.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Nafarroako Foru Komunitateko lehendakaria:
Uxue Barkos Berruezo

Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuan saneamendu sarea justifikatu gabe egoteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lekarozko Aroztegia proiektuan saneamendu sarea justifikatu gabe egoteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 27ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Bildu parlamentu-taldeak 9-16/PES-00224 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, udalez gairik plan eta proiektu sektorialak aztertzeke diziplinarteko eta departamentuarterko lantaldeak, "Aroztegia" izeneko udalez gairik plan sektorialari dagokionez, emandako txostenari buruz. Gai hori dela-eta, honako hau informatzeko beharra daukagu:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren otsailaren 8ko 42/2016 Foru Aginduaren bitartez, departamentuen arteko lantalde bat sortu zen, Udalez gairik plan eta proiektu sektorial batzuen izapidetze administratiboaren egoera aztertze aldera eta haiek lurralde antolamenduko tresna horietarako ezarritako lege-esparruan kokatzeko.

Aipatutako foru aginduan xedatzen da (5. puntua) lantalde horren lanetik heldu diren ondorioak kasuko aktetan jasoko direla. Haietan, egindako azterlanak jasoko dira, bai eta Nafarroako Gobernuari berak azter ditzan aurkeztuko zaizkion ondorioak ere. Nafarroako Gobernuak, azkenik, kasuan kasu bidezkoak diren erabakiak hartuko ditu.

"Aroztegia" udalez gairik plan sektorialari dagokionez, lantaldeak, aho batez, amaierako txosten bat eman zuen 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran.

Amaierako txosten hori Nafarroako Gobernuari helarazi zitzaion, baina gaur arte ez du inongo xedapen edo erabakirik hartu edo gogoetarik egin, aipatutako txostena dela eta.

Hala eta guztiz ere, galdetutakoari dagokionez, honako hau esan daiteke:

Gobernuak Aroztegiako udalez gairik plan sektorialaren garapenaren esparruan egiten diren jarduketak guztien segurtasun juridikoa zaindu beharra dauka, bai jada egin diren jarduketari dagokionez, bai etorkizunerako aurreikusten direnei dagokionez. Gobernuaren txosten juridikoei aipatzen dute ezen gaur arte garatutako jarduketak koherenteak direla aipatutako segurtasun juridikoaren printzipioarekin.

Sarearen ahalmenak justifikatzeari dagokionez, urbanizazio-proiektuari dagokio horri buruzko kalkulu hidrauliko zehatzak ematea.

Bestalde, udalez gairik plan sektorialaren izapidetzean entzunaldia izan zuen udal entitateak ez zuen beharrezkotzat jo txostena ematea, zeren eta ez baitzuen ez baloraziorik, ez alegaziorik egin horri buruz. Era berean, ez dago jasota esparruan eragina zuten eta aurretik izapidetuak ziren hirigintza-tresnen izapidetzeari buruzko txostenik egin zuenik.

Hori guztia informatzen dugu, behar diren eraginetarako.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Nafarroako Foru Komunitateko lehendakaria:
Uxue Barkos Berruezo

Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari dagokionez lurzatietan esplorazioak neurri handiagoan mugatu beharrari buruzkoa eta proiektu horretako espazio publiko urbanizatuak irisgarriak izateko eta lurzati horien irisgarritasunari eta erabilerari dagokienez bereizkeriarik ez izateko oinarritzko baldintzak betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lekarozko Aroztegia proiektuari dagokionez lurzatietan esplorazioak neurri handiagoan mugatu beharrari buruzkoa eta proiektu horretako espazio publiko urbanizatuak irisgarriak izateko eta lurzati horien irisgarritasunari eta erabilerari dagokienez bereizkeriarik ez izateko oinarritzko baldintzak betetzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 27ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Bildu parlamentu-taldeak 9-16/PES-00225 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, udalez gairako plan eta proiektu sektorialak aztertzeke diziplinari eta departamentuarterako lantaldeak, "Aroztegia" izeneko udalez gairako plan sektorialari dagokionez, emandako txostenari buruz. Gai hori dela-eta, honako hau informatzeko beharra daukagu:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren otsailaren 8ko 42/2016 Foru Aginduaren bitartez, departamentuen arteko lantalde bat sortu zen, Udalez gairako plan eta proiektu sektorial batzuen izapidetze administratiboaren egoera aztertze aldera eta haiek lurralde antolamenduko tresna horietarako ezarritako lege-esparruan kokatzeko.

Aipatutako foru aginduan xedatzen da (5. puntua) lantalde horren lanetik heldu diren ondorioak

kasuko aktetan jasoko direla. Haietan, egindako azterlanak jasoko dira, bai eta Nafarroako Gobernuari berak azter ditzan aurkeztuko zaizkion ondorioak ere. Nafarroako Gobernuak, azkenik, kasuan kasu bidezkoak diren erabakiak hartuko ditu.

"Aroztegia" udalez gairako plan sektorialari dagokionez, lantaldeak, aho batez, amaierako txosten bat eman zuen 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran.

Amaierako txosten hori Nafarroako Gobernuari helarazi zitzaion, baina gaur arte ez du inongo xedapen edo erabakirik hartu edo gogoetarik egin aipatutako txostena dela eta.

Hala eta guztiz ere, galdetutakoari dagokionez, honako hau esan daiteke:

Gobernuak Aroztegiko udalez gairako plan sektorialaren garapenaren esparruan egiten diren jarduketak guztien segurtasun juridikoa zaindu beharra dauka, bai jada egin diren jarduketari dagokionez, bai etorkizunerako aurreikusten direnei dagokionez. Gobernuaren txosten juridikoek aipatzen dute ezen gaur arte garatutako jarduketak koherenteak direla aipatutako segurtasun juridikoaren printzipioarekin.

Kasu honetan, urbanizazio-proiektua da jabari eta erabilera publikoko eremuak irisgarritasunari eta guztien erabilerari buruzko legedi indardunaren araberrako behin betiko egoeraren egokitasuna bermatzeko tresna eskuduna.

Hori guztia informatzen dugu, behar diren eraginetarako.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Nafarroako Foru Komunitateko lehendakaria:
Uxue Barkos Berruezo

Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuan Lurralde Antolamenduko 2. Planaren 58. artikulua betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lekarozko Aroztegia proiektuan Lurralde Antolamenduko 2. Planaren 58. artikulua betetzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 27ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Bildu parlamentu-taldeak 9-16/PES-00226 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, udalez gaindiko plan eta proiektu sektorialak aztertzeko diziplinarreko eta departamentuarreko lantaldeak, "Aroztegia" izeneko udalez gaindiko plan sektorialari dagokionez, emandako txostenari buruz. Gai hori dela-eta, honako hau informatzeko beharra daukagu:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren otsailaren 8ko 42/2016 Foru Aginduaren bitartez, departamentuen arteko lantalde bat sortu zen, Udalez gaindiko plan eta proiektu sektorial batzuen izapidetze administratiboaren egoera aztertze aldera eta haiek lurralde antolamenduko tresna horietarako ezarritako lege-esparruan kokatzeko.

Aipatutako foru aginduan xedatzen da (5. puntua) lantalde horren lanetik heldu diren ondorioak kasuko aktetan jasoko direla. Haietan, egindako azterlanak jasoko dira, bai eta Nafarroako Gobernuari berak azter ditzan aurkeztuko zaizkion ondo-

rioak ere. Nafarroako Gobernuak, azkenik, kasuan kasu bidezkoak diren erabakiak hartuko ditu.

"Aroztegia" udalez gaindiko plan sektorialari dagokionez, lantaldeak, aho batez, amaierako txosten bat eman zuen 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran.

Amaierako txosten hori Nafarroako Gobernuari helarazi zitzaion, baina gaur arte ez du inongo xedapen edo erabakirik hartu edo gogoetarik egin, aipatutako txostena dela eta.

Hala eta guztiz ere, galdetutakoari dagokionez, honako hau esan daiteke:

Gobernuak Aroztegiko udalez gaindiko plan sektorialaren garapenaren esparruan egiten diren jarduketak guztien segurtasun juridikoa zaindu beharra dauka, bai jada egin diren jarduketari dagokienez, bai etorkizunerako aurreikusten direnei dagokienez. Gobernuaren txosten juridikoek aipatzen dute ezen gaur arte garatutako jarduketak koherenteak direla aipatutako segurtasun juridikoaren printzipioarekin.

Galdetutakoari dagokionez, Lurralde Antolamenduko 2. Planaren zehaztapenak egiazki lotesleak dira plangintza egiten duenarentzat, eta gero garapenean ere jaso daitezke. Lurralde Antolamenduko 2. Planaren 58. artikulua ez du berariaz exijitzen oinezkoentzako eta bizikletetarako eremuak bereizita egotea. Urbanizazio-proiektuari dagokio gai horri ekitea.

Hori guztia informatzen dugu, behar diren eraginetarako.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Nafarroako Foru Komunitateko lehendakaria:
Uxue Barkos Berruezo

Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari buruzko txostenaren “1. alternatiba” izeneko aukerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lekarozko Aroztegia proiektuari buruzko txostenaren “1. alternatiba” izeneko aukerari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 27ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Bildu parlamentu-taldeak 9-16/PES-00227 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, udalez gairik diko plan eta proiektu sektorialak aztertzeko diziplinarteko eta departamentuarterko lantaldeak, “Aroztegia” izeneko udalez gairik diko plan sektorialari dagokionez, emandako txostenari buruz. Gai hori dela-eta, honako hau informatzeko beharra daukagu:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioaren kontseilariaren otsailaren 8ko 42/2016 Foru Aginduaren bitartez, departamentuen arteko lantalde bat sortu zen, Udalez gairik diko plan eta proiektu sektorial batzuen izapidetze administratiboaren egoera aztertze aldera eta haiek lurralde antolamenduko tresna horietarako ezarritako lege-esparruan kokatzeko.

Aipatutako foru aginduan xedatzen da (5. puntua) lantalde horren lanetik heldu diren ondorioak

kasuko aktetan jasoko direla. Haietan, egindako azterlanak jasoko dira, bai eta Nafarroako Gobernuari berak azter ditzan aurkeztuko zaizkion ondorioak ere. Nafarroako Gobernuak, azkenik, kasuan kasu bidezkoak diren erabakiak hartuko ditu.

“Aroztegia” udalez gairik diko plan sektorialari dagokionez, lantaldeak, aho batez, amaierako txosten bat eman zuen 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran.

Amaierako txosten hori Nafarroako Gobernuari helarazi zitzaion, baina gaur arte ez du inongo xedapen edo erabakirik hartu edo gogoetarik egin, aipatutako txostena dela eta.

Hala eta guztiz ere, galdetutakoari dagokionez, honako hau esan daiteke:

Gobernuak Aroztegiko udalez gairik diko plan sektorialaren garapenaren esparruan egiten diren jarduketak guztien segurtasun juridikoa zaindu beharra dauka, bai jada egin diren jarduketari dagokionez, bai etorkizunerako aurreikusten direnei dagokionez. Gobernuaren txosten juridikoek aipatzen dute ezen gaur arte garatutako jarduketak koherenteak direla aipatutako segurtasun juridikoaren printzipioarekin.

Hori guztia informatzen dugu, behar diren eraginetarako.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Nafarroako Foru Komunitateko lehendakaria:
Uxue Barkos Berruezo

Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari buruzko txostenaren “2. alternatiba” izeneko aukerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lekarozko Aroztegia proiektuari buruzko txostenaren “2. alternatiba” izeneko aukerari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 27ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Bildu parlamentu-taldeak 9-16/PES-00228 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, udalez gaindiko plan eta proiektu sektorialak aztertzeko diziplinarteko eta departamentuarterko lantaldeak, “Aroztegia” izeneko udalez gaindiko plan sektorialari dagokionez, emandako txostenari buruz. Gai hori dela-eta, honako hau informatzeko beharra daukagu:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariaren otsailaren 8ko 42/2016 Foru Aginduaren bitartez, departamentuen arteko lantalde bat sortu zen, Udalez gaindiko plan eta proiektu sektorial batzuen izapidetze administratiboaren egoera aztertze aldera eta haiek lurralde antolamenduko tresna horietarako ezarritako lege-esparruan kokatzeko.

Aipatutako foru aginduan xedatzen da (5. puntua) lantalde horren lanetik heldu diren ondorioak kasuko aktetan jasoko direla. Haietan, egindako azterlanak jasoko dira, bai eta Nafarroako Gober-

nuari berak azter ditzan aurkeztuko zaizkion ondorioak ere. Nafarroako Gobernuak, azkenik, kasuan kasu bidezkoak diren erabakiak hartuko ditu.

“Aroztegia” udalez gaindiko plan sektorialari dagokionez, lantaldeak, aho batez, amaierako txosten bat eman zuen 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran.

Amaierako txosten hori Nafarroako Gobernuari helarazi zitzaion, baina gaur arte ez du inongo xedapen edo erabakirik hartu edo gogoetarik egin, aipatutako txostena dela eta.

Hala eta guztiz ere, galdetutakoari dagokionez, honako hau esan daiteke:

Gobernuak Aroztegiko udalez gaindiko plan sektorialaren garapenaren esparruan egiten diren jarduketak guztien segurtasun juridikoa zaindu beharra dauka, bai jada egin diren jarduketari dagokienez, bai etorkizunerako aurreikusten direnei dagokienez. Gobernuaren txosten juridikoek aipatzen dute ezen gaur arte garatutako jarduketak koherenteak direla aipatutako segurtasun juridikoaren printzipioarekin.

Galdetutakoari dagokionez, aipatu beharra dago ezen kasu jakin honetan, Gobernuaren ustez, ez direla betetzen planteatutako aukera baiesteko baldintzak.

Hori guztia informatzen dugu, behar diren eraginetarako.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Nafarroako Foru Komunitateko lehendakaria:
Uxue Barkos Berruezo

Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari buruzko txostenaren “4. alternatiba” izeneko aukerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lekarozko Aroztegia proiektuari buruzko txostenaren “4. alternatiba” izeneko aukerari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 27ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Bildu parlamentu-taldeak 9-16/PES-00229 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, udalez gairik diko plan eta proiektu sektorialak aztertze dizi-plinarteko eta departamentuarterko lantaldeak, “Aroztegia” izeneko udalez gairik diko plan sektorialari dagokionez, emandako txostenari buruz. Gai hori dela-eta, honako hau informatzeko beharra daukagu:

Landa Garapeneke, Ingurumeneke eta Toki Administrazioke kontseilariaren otsailaren 8ko 42/2016 Foru Aginduaren bitartez, departamentuen arteko lantalde bat sortu zen, Udalez gairik diko plan eta proiektu sektorial batzuen izapidetze administratiboaren egoera aztertze aldera eta haiek lurralde antolamenduko tresna horietarako ezarritako lege-esparruan kokatzeko.

Aipatutako foru aginduan xedatzen da (5. puntua) lantalde horren lanetik heldu diren ondorioak

kasuko aktetan jasoko direla. Haietan, egindako azterlanak jasoko dira, bai eta Nafarroako Gobernuari berak azter ditzan aurkeztuko zaizkion ondorioak ere. Nafarroako Gobernuak, azkenik, kasuan kasu bidezkoak diren erabakiak hartuko ditu.

“Aroztegia” udalez gairik diko plan sektorialari dagokionez, lantaldeak, aho batez, amaierako txosten bat eman zuen 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran.

Amaierako txosten hori Nafarroako Gobernuari helarazi zitzaion, baina gaur arte ez du inongo xedapen edo erabakirik hartu edo gogoetarik egin, aipatutako txostena dela eta.

Hala eta guztiz ere, galdetutakoari dagokionez, honako hau esan daiteke:

Gobernuak Aroztegiko udalez gairik diko plan sektorialaren garapenearen esparruan egiten diren jarduketak guztien segurtasun juridikoa zaindu beharra dauka, bai jada egin diren jarduketari dagokionez, bai etorkizunerako aurreikusten direnei dagokionez. Gobernuaren txosten juridikoeke aipatzen dute ezen gaur arte garatutako jarduketak koherenteak direla aipatutako segurtasun juridikorearen printzipioarekin.

Hori guztia informatzen dugu, behar diren eraginetarako.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Nafarroako Foru Komunitateke lehendakaria:
Uxue Barkos Berruezo

Galdera, Lekarozko Aroztegia udalez gaindiko plan sektoriala iraungitzea erabakitzeke aukerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lekarozko Aroztegia udalez gaindiko plan sektoriala iraungitzea erabakitzeke aukerari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 27ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Bildu parlamentu-taldeak 9-16/PES-00230 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, udalez gaindiko plan eta proiektu sektorialak aztertzeke diziplinarteko eta departamentuarterko lantaldeak, "Aroztegia" izeneko udalez gaindiko plan sektorialari dagokionez, emandako txostenari buruz. Gai hori dela-eta, honako hau informatzeko beharra daukagu:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren otsailaren 8ko 42/2016 Foru Aginduaren bitartez, departamentuen arteko lantalde bat sortu zen, Udalez gaindiko plan eta proiektu sektorial batzuen izapidetze administratiboaren egoera aztertze aldera eta haiek lurralde antolamenduko tresna horietarako ezarritako lege-esparruan kokatzeko.

Aipatutako foru aginduan xedatzen da (5. puntua) lantalde horren lanetik heldu diren ondorioak kasuko aktetan jasoko direla. Haietan, egindako azterlanak jasoko dira, bai eta Nafarroako Gober-

nuari berak azter ditzan aurkeztuko zaizkion ondorioak ere. Nafarroako Gobernuak, azkenik, kasuan kasu bidezkoak diren erabakiak hartuko ditu.

"Aroztegia" udalez gaindiko plan sektorialari dagokionez, lantaldeak, aho batez, amaierako txosten bat eman zuen 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran.

Amaierako txosten hori Nafarroako Gobernuari helarazi zitzaion, baina gaur arte ez du inongo xedapen edo erabakirik hartu edo gogoetarik egin, aipatutako txostena dela eta.

Hala eta guztiz ere, galdetutakoari dagokionez, honako hau esan daiteke:

Gobernuak Aroztegiko udalez gaindiko plan sektorialaren garapenaren esparruan egiten diren jarduketak guztien segurtasun juridikoa zaindu beharra dauka, bai jada egin diren jarduketari dagokionez, bai etorkizunerako aurreikusten direnei dagokionez. Gobernuaren txosten juridikoek aipatzen dute ezen gaur arte garatutako jarduketak koherenteak direla aipatutako segurtasun juridikoaren printzipioarekin.

Galdetutakoari dagokionez, aipatu beharra dago ezen kasu jakin honetan, Gobernuaren ustez, ez direla betetzen planteatutako aukera baiesteko baldintzak.

Hori guztia informatzen dugu, behar diren eraginetarako.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Nafarroako Foru Komunitateko lehendakaria:
Uxue Barkos Berruezo

Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari buruzko txostenaren konklusioetako 4. aukerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lekarozko Aroztegia proiektuari buruzko txostenaren konklusioetako 4. aukerari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 27ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Bildu parlamentu-taldeak 9-16/PES-00231 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, udalez gairako plan eta proiektu sektorialak aztertze ditzin arteko eta departamentu arteko lantaldeak, "Aroztegia" izeneko udalez gairako plan sektorialari dagokionez, emandako txostenari buruz. Gai hori dela-eta, honako hau informatzeko beharra daukagu:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren otsailaren 8ko 42/2016 Foru Aginduaren bitartez, departamentu arteko lantalde bat sortu zen, Udalez gairako plan eta proiektu sektorial batzuen izapidetze administratiboaren egoera aztertze aldera eta haiek lurralde antolamenduko tresna horietarako ezarritako lege-esparruan kokatzeko.

Aipatutako foru aginduan xedatzen da (5. puntua) lantalde horren lanetik heldu diren ondorioak kasuko aktetan jasoko direla. Haietan, egindako azterlanak jasoko dira, bai eta Nafarroako Gober-

nuari berak azter ditzan aurkeztuko zaizkion ondorioak ere. Nafarroako Gobernuak, azkenik, kasuan kasu bidezkoak diren erabakiak hartuko ditu.

"Aroztegia" udalez gairako plan sektorialari dagokionez, lantaldeak, aho batez, amaierako txosten bat eman zuen 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran.

Amaierako txosten hori Nafarroako Gobernuari helarazi zitzaion, baina gaur arte ez du inongo xedapen edo erabakirik hartu edo gogoetarik egin, aipatutako txostena dela eta.

Hala eta guztiz ere, galdetutakoari dagokionez, honako hau esan daiteke:

Gobernuak Aroztegiko udalez gairako plan sektorialaren garapenaren esparruan egiten diren jarduketak guztien segurtasun juridikoa zaindu beharra dauka, bai jada egin diren jarduketari dagokionez, bai etorkizunerako aurreikusten direnei dagokionez. Gobernuaren txosten juridikoek aipatzen dute ezen gaur arte garatutako jarduketak koherenteak direla aipatutako segurtasun juridikoaren printzipioarekin.

Galdetutakoari dagokionez, aipatu beharra dago ezen kasu jakin honetan, Gobernuaren ustez, ez direla betetzen planteatutako aukera baiezteko baldintzak.

Hori guztia informatzen dugu, behar diren eraginetarako.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Nafarroako Foru Komunitateko lehendakaria:
Uxue Barkos Berruezo

Galdera, ANADI elkarteak eskatu duen diru-laguntza ukatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ANADI elkarteak eskatu duen diru-laguntza ukatzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 27ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak galdera bat egin du (9-16/PES-00232) ANADI-Diabetesaren Nafarroako Elkarteak eskatu duen diru-laguntza ukatzeari buruz. Horri erantzuteko, eskatutako dokumentazioa igortzen diot eta honako informazio hau ematen diot:

Gizarte Politiketako kontseilariaren urtarrilaren 16ko 33E/2015 Foru Aginduaren bitartez, desgaitasunak dituzten pertsonen arloko gizarte ekimeneko entitateetarako 2015eko urterako diru-laguntzen deialdia onetsi zen.

Deialdi horren 1.2 oinarrian, diru-laguntzaren modalitateak zehazten dira, entitate eskatzaileek aukeran izanzen dituztenak, eta adierazten da deialdiaren ondorioetarako modalitate multzo batek osatzen duela proiektua eta entitateak hartarako eskatzen du eta diru-laguntza. Diruz laguntzeko bi modalitate ezartzen dira, elkarren artean osagarri eta bateragarri direnak:

- a) "Elkartegintza sustatzea"
- b) "Programak garatzea"

Diabetesaren Nafarroako Elkarteak (ANADI) b) modalitateko ("Programak garatzea") diru-laguntza jasotzeko eskaera bat aurkeztu zuen.

Nafarroako Mendekotasunerako Agentziako zuzendari kudeatzailea ordeztuz Mendekotasunerako Baliabideen eta Kudeaketaren zuzendariordeak emandako uztailaren 2ko 39E/2015 Ebazpenaren bitartez, desgaitasuna duten pertsonen arloko gizarte ekimeneko entitateei, 2015. urtean autonomia sustatzeko eta mendetasunari aurrea hartzeko programak egiteko, diru-laguntzak emateko deialdia ebatzi zen.

Hartan, ebatzi zen izapidetzera ez onartzea ANADI-Diabetesaren Nafarroako Elkartearen diru-laguntzarako eskaera, deialdiko I. eranskinen 3.d) oinarrian aipatutako baldintza ez bete-tzeagatik; izan ere, hartan eskatzen da "Erakundearen helburua desgaitasunak dituzten pertsonendako jarduerak egitea dela agertzea estatutuetan".

Uztailaren 22an, Juan José Remón Virto jaunak, ANADI-Diabetesaren Nafarroako Elkartearen izenean, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zuen uztailaren 2ko 39E/2015 Ebazpenaren aurka.

Eskubide Sozialetako kontseilariaren irailaren 15eko 92/2015 Foru Aginduaren bitartez, baietsi egin zen Juan José Remón Virto jaunak, ANADI-Diabetesaren Nafarroako Elkartearen izenean, aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioa, eta agindu zen Diabetesaren Nafarroako Elkarteak aurkeztutako eskaera balora zedin, erreferentziako deialdian ezarritako irizpideei jarraituz.

Entitateak bere eskaera programetan egituratuta aurkeztu zuen (a) modalitatea).

33E/2015 Foru Aginduaren III. eranskinak "Programak garatzea" modalitatearen berriazko oinarriak ezartzen ditu, eta, aldi berean, bi modalitate bereizi ezartzen ditu (1.2 oinarria):

- a) Programetan egituratutako eskaera. Gehienez ere 6 programek jasoko dute diru-laguntza.
- b) Programa orokor batean egituratutako eskaera, hots, entitatearen jarduera guztiak programa bakar batean bilduz.

Modalitate bakoitzean eskaerak baloratzeko modua III. eranskinen 6. oinarrian dago araututa; izan ere, "programetan egituratutako proiektu" bat aurkezten duten entitateei dagokienez, ezartzen du balorazioa bi fasetan egingen dela: lehenbizikoa entitate eskatzailea diru-laguntzaren xede den proiektuaren arduraduna den aldetik baloratuko da, alegia, programak garatzeko duen gaitasuna; bigarrenean, aurkezten den programa baloratuko da.

Bi faseak zein bere aldetik baloratuko dira, hurrengo oinarrian aipatzen diren irizpide eta puntuazioak erabilita. Fase bakoitzean gehienez ere 100 puntu lortzen ahalko dira.

Bi faseak baztertzailak dira; hortaz, haietako bakoitzean, entitateek 60 puntu gutxienez eskuratu beharko dituzte. Beraz, diru-laguntza jasotzeko,

programa bakoitzeko gutxieneko batura 120 puntukoa izanen da, bi faseak kontuan harturik.

Bestalde, 7. oinarriak aplikatzekoak diren irizpideak ezartzen ditu, bai proiektuaren ardura duen entitatea baloratzerakoan erabili beharrekoak, bai aurkeztutako proiektuetako bakoitza baloratzeko erabili beharrekoak. Halaber, balorazio-irizpideetako bakoitzari dagokion gehieneko puntuazio bat ezartzen da, horietako bakoitzean baloratzen diren alderdiak zehaztuz, eta horietako bakarren batean graduazio-irizpide batzuk ezartzen dira puntuak esleitzerakoan.

Programen eta Diru-laguntzen Kudeaketaren Atalak egindako proposamen-txostenean jaso bezala, ANADI entitatea proiektuaren arduradun gisa baloratuta, 63,21 puntu lortu zituen, eta horrela beharrezkoa den gutxienekoa gainditu zuen; hori dela eta, programak baloratzeari ekin zitzaion, 7,2 oinarrian ezarritako irizpideei jarraituz.

Honako hau izan zen programen balorazioa:

1. programa: "Diabetesa duten pertsonen eta haien senideei arreta integrala ematea": 50,06 puntu.

2. programa: "Diabetesa duten gazteen eta haurren autonomia sustatzea": 52,20 puntu.

3. programa: "Kirola eta diabetesa": 50,28 puntu.

Entitateak aurkeztutako programak baloratzen, horietatik bat ere ez zen iritsi deialdia exijitutako gutxienera (60 puntu); hori dela eta, III. eranskineko 6.2 oinarrian xedatuaren arabera, ezezkua eman behar zitzaion egindako laguntza-eskaerari.

Hartara, Nafarroako Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako zuzendari kudeatzailearen abenduaren 2ko 57E/2015 Ebazpenaren bitartez, ANADI-Diabetesaren Nafarroako Elkarteak aurkeztutako diru-laguntza eskaera baloratu eta ezetsi zen, ez baitzen iristen deialdian exijitutako gutxieneko puntuaziora.

2015eko abenduaren 16an, Juan José Remón Virto jaunak, ANADI-Diabetesaren Nafarroako Elkartearen izenean, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu zuen diru-laguntzari ezezkua eman zion ebazpenaren aurka. Entitateak zalantzan jartzen zuen Administrazioak egindako balorazioa, eta uste zuen zenbait irizpide ez zirela izan arauaren araberrakoak. Aurkeztutako programen puntuazio-balorazio berria proposatu zuen.

Gora jotzeko errekurtsua Eskubide Sozialetako kontseilariaren urtarrilaren 25eko 29/2016 Foru Aginduaren bitartez ezetsi zen, zeren eta jo bai-

tzen programen balorazioa deialdian ezarritako irizpideen arabera eta Administrazioak daukan diskrezionalitate-tartearen barruan egin zela, eta ez zegoela, kasu honetan, akats nabarmen eta agerikorik edo arbitrariotasunik; horrenbestez, interesdunaren asmoa bazen organo kalifikatzaileak emandakoaz beste balorazio bat, interesatua, lortzea, zeina ezin baita aintzat hartu.

Horri dagokionez, doktrinak behin eta berriz ezarri du diru-laguntzaren teknikan edo eragiketean bi une bereiz daitezkeela: diru-laguntzaren sorrera edo eratzea eta haren banaketa edo emate singularizatua. Bada, diru-laguntzen deialdiaren ezarpena Administrazio batentzat diskrezionala izan badaiteke ere, behin argitaratuta araua hasten da, eta haren banaketa Administrazioaren boluntarismo hutsetik kanpo geratzen da; izan ere, Administrazioak kasuko deialdian ezarritako baldintza eta irizpideak aplikatu behar ditu, kasu honetan gertatu den bezala.

Egia da auzitegiek (bai Auzitegi Gorena, bai Konstituzio Auzitegia) onartu dutela ezen diru-laguntzak banatzeko edo emateko fasean ere diskrezionalitate tekniko dagoela kasu askotan, eta kasuan kasuko diru-laguntza motaren arabera eta diru-laguntza emateko ezarritako moduaren arabera Administrazioak, egiazki, askatasun tarte txiki bat izanen duela, balioesteko tarte bat, azken batez Administrazio publikoan sartzeko edo lanpostu bat lortzeko oposizioetako edo lehiaketako epaimahai kalifikatzaileek daukatenean antzeko diskrezionalitate tekniko bat.

Aurrekoa ezarrita, diskrezionalitatea mugatzeko edo mugatzera jotzeko teknika eta berme batzuk badaude; honako hauek, besteak beste: emateko prozedura eta eskaerak balioesteko alde aurretiko irizpide batzuk ezartzeko beharra eta, zehazki, egintzen zioak emateko betebeharra.

Aztertzen ari garen kasuan, emateko prozedura zehatz araututa zetorren deialdian bertan, non, gainera, horietako bakoitzari emandako balioespen-irizpideak eta puntuazioa aipatzen baitira, bai eta ponderaziorako irizpide berariazkoak ere; eta, azkenean, emandako ebazpena proposamen-txostenean oinarrituta dago, non organo kudeatzaileak emandako balioespena ageri baita.

Bestalde, jakina da, eta horrelaxe aipatzen du Auzitegi Gorenak (Hirugarren Salaren 2012ko ekainaren 27ko epaia), diskrezionalitate teknikoak Administrazioaren organoen ebaluazio-jarduketa praktikan bi kasu hauetara mugatzen duela: a) araututako elementuak betetzen ez direnean, halakoak daudenean; b) akats nabarmen eta ageriko bat dagoenean. Horrenbestez, mugatutako

kontrol horretatik kanpo uzten ditu interesdunen asmoak, halakoetan organo kalifikatzailearen beste ebaluazio bat baizik eskatzen ez denean, betiere balioespen liberako onartutako eremutik atera gabe eta balizko akats nabarmen batean oinarrituta ez daudenean.

Azaldutakotik ondorioztatzen da aurkeztutako programen balioespena Zuzenbidearen arabera-koa dela, ez dagoela prozesu guztia baldintzatu duen hasierako akatsik, ezezkoa eragin duenik, eta, era berean, ez dagoela baremazio akastun

batek eragindako okerrrik; izan ere, diru-laguntzarako eskaera deialdian ezarritako baremazio-irizpideen arabera baloratu da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 16an

Eskubide Sozietateko lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

Galdera, Nafarroako Gobernuak eta haren mendeko sozietateek Tafallako eskualdean alokatuta dituzten higiezonei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak eta haren mendeko sozietateek Tafallako eskualdean alokatuta dituzten higiezonei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 27ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-

00233) Nafarroako Gobernuak eta haren mendeko sozietateek Tafallako eskualdean errentan dauzkaten higiezenen kopuruari buruz. Galdera hori 2016ko maiatzaren 19ko 2175 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernuak eta haren mendeko sozietate publikoek ez dute inolako errentamendu kontraturik (errentari gisa) ez Tafallan, ez eta haren eskualdean ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria: Mikel Aranburu Urtasun

Galdera, errenta-aitorpenaren kanpaina dela-eta bai Ogasuneko 182. zenbakiko eredia aurkeztu behar duten elkarte, sindikatu eta erakundeei bai zergadunarentzako arreta ematen duten administrariei eman zaizkien jarraibideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Fátima Andreo Vázquez andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, errenta-aitorpenaren kanpaina dela-eta bai Ogasuneko 182. zenbakiko eredia aurkeztu behar duten elkarte, sindikatu eta erakundeei bai zergadunarentzako arreta ematen duten administrariei eman zaizkien jarraibideei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 28ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Fátima Andreo Vázquez andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-00234). Galdera hori 2016ko maiatzaren 24ko 2238 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuako Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Galderaren bidez informazioa lortu nahi da bi gai edo eskaera jakini buruz:

Lehena.- Zer jarraibide eman zaizkien Ogasun Departamentutik, 2015. urteari dagokion errenta-aitorpenaren kanpaina dela-eta, Ogasuneko 182. zenbakiko eredia aurkeztu behar duten elkarte, sindikatu eta mota guztietako erakundeei, hain zuzen ere 2014an jasotakoak diren baina, eredu hori epearen barnean ez aurkezteagatik, desgrabatu ez ziren ekarpenei buruz.

Bigarrena.- Zer jarraibide eman zaizkien gai horretan zergadunentzako arreta ematen duten administrariei.

Hasteko komeni da zehaztea Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 28ko 23/2015 Foru Legeak honako hau dioen hemeretzigarren xedapen iragankorra gehitu ziola Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginari:

“Sindikatu eta elkargoen kuotak, alderdi politikoentzako kuotak eta ekarpenak, eta dohaintzak, 2014an ordaindutakoak.

Epean aurkeztutako aitorpen informatiboan sartu ez zirelako, 2014ko zergaldian kenketarik eragin ez zuten sindikatu eta elkargoen zenbait kuota, alderdi politikoentzako kuotak eta ekarpenak, eta dohaintzak kenkariaren xede izan daitezke 2015eko zergaldiko aitorpenean, 2014ko abenduaren 31n indarra zuen araudiarekin bat, betiere horiek jaso dituzten entitateek 2015eko zergaldian aurkeztu beharreko eredu informatiboan aurreikusitako moduan aitorpenean sartzan badituzte.”

Horretaz gainera, azaroaren 4ko 62/2015 Foru Aginduak 182. eredia aldatu zuen, eta haren lehen xedapen iragankorrean honako hau xedatu zen:

“2014. urteari dagokion informazio-aitorpena.

Salbuespen gisa, epean aurkeztutako informazio-aitorpenean sartu ez zirelako, 2014ko zergaldian kenketarik eragin ez zuten dohaintzak, sindikatuen eta lanbide elkargoen kuotak eta alderdi politikoentzako kuotak eta ekarpenak kenkariaren xede izan daitezke 2015eko zergaldiko aitorpenean, 2014ko abenduaren 31n indarra duen araudiarekin bat, betiere horiek jaso dituzten entitateek 2015eko zergaldian aurkeztu beharreko informazio-ereduan aurreikusitako moduan aitorpenean sartzan badituzte.

Horretarako, soilik 2015eko informazio-aitorpenerako, eremu berri bat sortu da 2. motako erregistroan (Aitortuaren erregistroa; 201-204 idazguneak), “Sorrarazpenaren ekitaldia” izenekoa, informazioaren sorrarazpen ekitaldiaren lau zifrak adierazteko.”

Arau-aldaketa horiek eman aurretik –2015eko azaroan eta abenduan argitaratu ziren–, zenbait bilera egin ziren sindikatu guztiekin, 2015eko martxoan eta apirilean hasita. Bilera horietan –eta egindako telefono-dei ugarietan–, informazioa eman zitzaien eskatu nahi zen arau-aldaketari buruz, hain zuzen ere 2015eko udaberriko errentaren aitorpenean sortutako arazoa, aparteko izaeraz, zuzentzeko, orduan 182. eredian ez baitziren

sartu 2014. urtean ordaindutako kuota jakin batzuk.

Behin aipatu berri ditugun arau-aldaketak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, mezu elektronikoa bat bidali zitzaion, erantsi dugun zirkularrekin. Gainera, Excel orri bat gehitu zen, non zirkularra igorria zitzaion entitateak eta posta elektronikokoetako helbideak agertzen baitziren. Bidalketa horiek egin aurretik goitik behera egiaztatu ziren helbideak eta hartzaileak.

Ikus daitekeen bezala, emandako informazioa oso argia zen: 2016ko otsailaren 5era arteko epe berezi bat dago 182. ereduan 2014ko kuotei buruz (sindikatu eta elkargoei ordaindutakoak eta dohaintzak) informatzeko.

Komeni da zehaztea ezen jaso gabeko mezuen kudeaketa xehea egin zela, halako moduz non kasu hauetan zirkularra berriz bidali baitzen egokiagozat jotako beste helbide elektronikoa batera. Dokumentu bidez jasota dago hori.

Modu osagarrian, Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiko Komunikazio Zerbitzuarekin koordinatuta, prentsa-ohar bat idatzi zen, zeina 2016ko urtarrilaren 4an argitaratu baitzen egunkarrietan, hau da, 182. eredu aurkezteko epea amaitu baino hilabete lehenago. Prentsa-ohar horren edukia aurreko zirkularren edukien antzekoa zen.

Adibide moduan, egunkari batean argitaratutakoaren esteka erantsi dugu.

Ogasuna. Sindikatu eta elkargoen kuotengatikoen kenkariak aplikatzeko epe berezia.

Bestalde, gaiari buruzko informazioa jasotzeko deitu duten pertsona edo entitate guztiak banaka artatu dira. Lau bide erabili dira horretarako:

a) Entitate Laguntzaileen Bulegoan, berriazko kontaktu gisa balio izan baitu.

b) Jendea artatzeko telefono orokorretan.

c) Errentaren Kanpainaren postontzitik mezu elektronikoei erantzun zaie.

d) Identifikazioaren eta Eredu Informatiboen Atalak kontsultei erantzun die.

Informazio-bide horietan guztietan, administrazioei jakinbide eta jarraibide zehatzak eman zaizkie prentsa-oharretan eta aipatutako zirkularretan jasotako edukien berdin-berdinak ziren informazioak emateko.

Azkenik, esteka bat erantsi dugu, Nafarroako Zerga Ogasunaren webgunean argitaratutako iragarki batena, non eduki eta xede berberak jaso baitziren.

Ogasunak urtarrilean aparteko epe bat zabalik izango du 2014ko sindikatu eta elkargoen kuotengatik dauden kenkariak errazteko

Amaierako ondorioa da ezen bai sindikatuei, bai alderdi politiko, entitate dohaintza-emaile eta administrazioei ere jarraibide eta informazio berak eman zaizkiela, eta haien xedea zela zorrotz betetzea Nafarroako Parlamentuak eta behean sinatzen duen kontseilariak horri buruz onetsitako arauak.

Iruñean, 2016ko ekainaren 24an

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria:
Mikel Aranburu Urtasun

(Oharra: Aipatutako eranskinak eskuragarri dituzte foru parlamentarietako, parlamentuko kudeaketarako Ágora sisteman.)

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Kultur Ondarearen Ondasunen Erregistroan inskribatutako ondasunen jabeei egindako errekerimenduei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Kultur Ondarearen Ondasunen Erregistroan inskribatutako ondasunen jabeei egindako errekerimenduei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 28ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Kultur Ondareko Ondasunen Erregistroan inskribatuta dauden eta Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak ez diren ondasunetan egindako esku-hartzei buruz, azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen 29.2 artikuluan xedatutakoaren babesean (9-16/PES-00235). Hona Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren erantzuna:

Egiazki, zenbait hamarkadatan zehar aipatutako 29.2 artikulua aplikatu izan da, non ezartzen baita "Foru Komunitateko administrazioak zuzenean egin ditzakeela beharrezko esku-hartzeak, eta ondasunaren titularrari berehala emanen diola horren berri, hura kontserbatu edo babesteak hala eskatzen badu", kultur intereseko ondasun edo ondasun inbentariatu gisa sailkatutakoak babesteko.

2000. urtetik, kultur ondasunen titularrek haiek kontserbatzeko betebeharraren exijentzia, azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legeko 29.1 artikuluan aurreikusitako Foru Komunitateko Administrazioaren errekerimenduaren bitartekoa, behin bakarrik gauzatu da, eta Elizaz beste titular batena den Biguriako Jauregiaren teilatuak konponarazteko izan da.

Aipatutako foru legeko 29.2 artikulua aplikazioaz gainera, kontserbazioaren betebeharraren exijentzia udal edo lurralde planeamenduen bitartez bermatu izan da, non ondasun katalogatuak

eta haien babes-araubidea ezartzen baitira (32. artikulua), bai Kultura Departamentuaren baimen lotesleen bitartez (kultur intereseko ondasunetan edo ondasun inbentariatueta obra lizentziak eman aurrekoak (39. eta 43. artikulua) bai egindako ikuskapenen emaitzei buruz toki entitateei igorritako komunikazioen bitartez.

Era berean, jakitera ematen dizut ezen legegintzaldi honetan legea aplikatzeko modua berraztertzen ari dela, Nafarroako ondare historiko eta artistikoa babesteko betebeharra betetzeari begira. Gaur arte, 29.2 artikulua Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak ez diren eta kultur intereseko ondasunaren kalifikazioa duten hiru ondasunetan esku hartzeko aplikatu izan da soilik.

1. Iruñeko Katedraleko klaustroaren zaharberritzea. Kasu honetan, honako hauek izan dira artikuluko hori aplikatzeko izan ditugun arrazoiak:

– Nafarroako Parlamentuaren 2013ko otsailaren 26ko Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da erabateko lehentasunez eta lehenbailehen has ditzan Tuteran eta Iruñeko klaustroak zaharberritzeko lanak.

– Caixa eta CAN banku-fundazioek onetsitako funts pribatu handi batzuk egotea (esku-hartze osoaren % 56koak) esku-hartze hori aurrera eramateko.

– Artzapezpikutzak behar zen finantzaketaren ekarpen bat egitea (guztizkoaren % 11).

Katedraleko klaustroaren zaharberritzeari buruzko hitzarmena idatzi da aipatutako 2013ko mozioko 3. puntua kontuan hartuta, eta herritar guztiak sartzeko eta ordaintzeko moduko bisitak egiteko plan bat eginen da, berariaz zehazten diren kolektiboentzako berariazko abantailak jasoz.

Horri dagokionez, Artzapezpikutzari txosten zehatz bat eskatu zaio prezioei, sarrera libreei eta ordaintetari buruz, bai eta bisita-kopuruari buruz ere, klaustroa sartzeko politika egoki bat ezartze aldera.

2. Fiteroko monasterioko klaustroaren zaharberritzearen azken fasea. Kasu honetan, bidean zeuden zaharberritze-obra batzuen amaiera erraztera jo da. Iruñeko Katedralaren kasuan bezala, monumentu horretara sartzeko eta hari

buruzko zabalkundea egiteko plan bat diseinatuko da.

3. Iruritako Dorrearen zaharberritzea. Kasu honetan, eraikinaren kontserbazio-egoera dela eta, lehentasuna eman zaio esku-hartzea Nafarroako Gobernuak zuzenean eta berak guztiz finantzatuta egiteari. Hemendik gutxira hitzarmen bat sinatuko da jabetzaren titularra den Baztango Udalarekin administrazio bakoitzaren betebeharrei eta erantzukizunei buruzko guztia arautzeko, bai eta gero ondasuna erabiltzeko eta hari buruzko zabalkundea egiteko ere.

Etorkizunean, Ondare Historikoaren arloko ekintza plana idatziko dugu, Nafarroako Parlamentuak 2016eko ekainaren 2ko mozioan onetsitako irizpideei jarraituz. Hori dela eta:

– Lehentasuna emanen zaie Nafarroako Gobernuaren edo udalen titulartasuneko eraikin historiko, artistiko eta monumentaletan beharrezkoak diren inbertsioei.

– 14/2005 Foru Legearen 7. artikulua aipatzen duen batzorde mistoa sortu eta bera biltzeko deialdia egingen da, bermatze aldera Nafarroako era-

kunde publikoek gaur egun Eliza Katolikoaren jabetzakoak diren eraikinetan egindako inbertsio publiko guztiek beraiekin ekar ditzaten erabilera eta ustiapen-eskubideak, Nafarroako herritarren mesedetan.

– Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Ondare Historikoaren Zerbitzuak titulartasun pribatuko eraikinetan inbertsioak egin baino lehen, azterlan tekniko eta ekonomiko zorrotza egingen da, non justifikatuko baita inbertsio-behar horrek lehentasun handigoa duela ondare publikoan esku hartzeko beste inbertsio batzuek baino. Azterlan hori Nafarroako Parlamentuko Kultura Batzordean aurkeztuko da, aipatu inbertsiorako arrazoiak azaltzeko eta parlamentu-taldean jarrera ezagutzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 24an.

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Ana Herrera Isasi